

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 13

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

30 urte

2008 - Otsailak - 15

2008ko OTSAILAREN 12ko MAHAI NEGOZIATZAILEA

Pasa den otsailaren 12an izan genuen mahai negoziatzailean **gertatutakoa**:

1. Lan Hitzarmena-LEP deialdia. Dakizuenez, 3 sindikatuok bat egin dugu Partzuergoarekin eramaten ari garen negoziazioan. Oraingo honetan plataforma idatziz eman genien. Partzuergoak pasa den bileran esandakoa baino gehiago eskatzen genuela adierazi zuen. Sindikatuok erantzun genien aurrekoan bota genuena zela, baina zehaztasunekin.

Partzuergoak, gure idatzian oinarrituz, beraiekiko gero eta hurbilago egon beharrean, eskakizunetan hurrentzen ari garela esan zuen. Idazkia jaso baino lehen beraien nahia hamabost egunetan aurre-akordioa sinatzea zela (lan hitzarmeneko puntu garrantzitsuekin eta LEP deialdia) adierazi zuten.

Sindikatuok ezer gutxi eman digutela adierazi genuen eta Partzuergoak argi utzi zuen ezer gutxi gehiago eman ahal izango zigula berez. Hori bazen gure irakurketa, ez zirela prest egongo negoziatzen jarraitzeko.

Hau dela eta, bilera bukatu zen hurrengo bilerarako datarik gabe.

Gertatutakoa kontutan izanik eta gauden egoera ikusita, plataforma osatzen dugun sindikatuok langile guztientzako asanbladak egitea pentsatu dugu, zuen iritzia jasotzeko. Deialdia e-mailen bidez jasoko duzue datorren astean.

Animo eta zuen indar guztiekin aurrera egingo dugu!!